## 1 ¿POR QUÉ UN PROGRAMA DE DETECCIÓN PRECOZ DEL CÁNCER DE MAMA?

El cáncer de mama es el más frecuente y la primera causa de muerte por cáncer entre las mujeres de Euskadi, y el programa de detección precoz tiene como objetivo disminuir dicha mortalidad.

## 2 ¿A QUIÉN VA DIRIGIDO?

A las mujeres de Euskadi de entre 50 y 69 años, así como a las de 40 a 49 años con antecedentes familiares de cáncer de mama de primer grado (madre, hermana, hija, padre, hermano, hijo). La decisión de participar o no depende de cada mujer. El único motivo de exclusión es haber sido diagnosticada previamente de cáncer de mama.

## 3 ¿EN QUÉ CONSISTE?

En la realización de dos radiografías (mamografías) en distinta proyección de cada mama. Las dosis de radiación emitidas son muy bajas por lo que el riesgo para la salud es mínimo.

El proceso completo incluidas entrevista y mamografía dura media hora. Esta prueba puede resultar incómoda y algo dolorosa para algunas mujeres, pero habitualmente el dolor pasa rápidamente.

## ¡IMPORTANTE!

- Si se desplaza en silla de ruedas, tiene problemas de movilidad de brazos, etc. comuníquenoslo antes de acudir a la cita.
- Si se ha realizado mamografías hace menos de 6 meses, está embarazada o dando de mamar, es conveniente posponer la mamografía.
- Si es portadora de prótesis mamarias, comuníquelo en la unidad antes de realizarse las mamografías.

## 4 LOS RESULTADOS

En el 90% de los casos no se requiere ninguna prueba más y se envía un informe por correo postal con la recomendación de cuándo realizar la siguiente mamografía.

Alrededor del 10% recibirán una llamada telefónica para completar el estudio.

Sólo al 1% se les recomendará acudir a un hospital de referencia para continuar con el proceso diagnóstico y realizar un tratamiento en caso necesario.

## 5 BENEFICIOS DE LA DETECCIÓN PRECOZ

- Detecta tumores pequeños antes de que den síntomas o se palpen.
- La detección temprana puede salvar vidas y ofrece una mejor calidad de vida mediante tratamientos menos agresivos.

## 6 RIESGOS DE LA DETECCIÓN PRECOZ

- Las pruebas adicionales son fuente de preocupación y sin embargo, en su mayoría, el resultado no es maligno.
- Algunas mujeres pueden ser diagnosticadas y tratadas de cánceres que por su capacidad de progresión no hubieran supuesto riesgo para su vida. Puesto que no siempre se puede conocer este aspecto del tumor, se ofrece tratamiento en todos los casos.

**¡ES SUYA LA DECISIÓN DE PARTICIPAR O NO EN EL PROGRAMA!**



# BULARREKO MINBIZIA GOIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA

**900 123 412**

pdpcm.unidadcentral@osakidetza.eus

http://www.osakidetza.euskadi.eus/bularreko-programa

POSTA ARRUNT BIDEZ BIDALTZEN DA PROGRAMAN PARTE HARTZEKO HITZORDUA. AURRENEKO ZITARA JOAN EZEAN, BIGARRENGO BAT JASOKO DUZU.

PROZESU HAU BI URTETIK BEHIN ERREPIKATZEN DA ETA EZ JOAN ARREN, **PROGRAMAREN BARNEAN** GERATZEN ZARA HURRENGO TXANDARAKO

KONTSULTATU ZURE MEDIKUAREKIN EDOZEIN BULARRETAKO ALDAKETA. MAMOGRAFIAK, OSO ERAGINKORRAK IZANIK ERE, EZ DITU MINBIZI GUZTIAK ANTZEMATEN.

Osakidetza

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA — DEPARTAMENTO DE SALUD

## 1 ZER DELA-ETA BULARREKO MINBIZIA GOIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA?

Bularreko minbizia da ohikoena Euskadiko emakumeen artean, baita heriotza gehien eragiten dituen minbizia ere. Detekzio goiztiarreko programa honen helburua hilkortasuna murriztea da.

## 2 NORENTZAT DA?

Euskadiko emakume hauentzat: 50 eta 69 urte artekoak; baita 40 eta 49 urte artekoak ere, baldin eta bularreko minbiziko lehen mailako familia-aurrekariak badituzte (ama, ahizpa, alaba, aita, neba, semea). Norberak erabakiko du parte hartu nahi duen ala ez. Salbuespen bakarra izango dira aldez aurretik bularreko minbizia diagnostikatu zaien emakumeak.

## 3 ZERTAN DATZA?

Bular bakoitzeko bi erradiografia (mamografia), proiekzio ezberdinetatik. Igorritako erradiazio-dosiak oso txikia dira, beraz, osasunerako arriskua minimoa da. Prozesu osoak ordu erdi dirau, eta mamografiak minutu gutxi batzuk. Proba hau deserosoa eta mingarri samarra izan daiteke emakume batzuentzat, baina mina arin joan ohi da.

### ADI!

- Gurpil-aulkia erabiltzen baduzu, besoak mugitzeko arazoak badituzu eta abar, jakinaraz iezaguzu telefonoz zitara joan aurretik.
- Azken 6 hilabeteetan mamografiaren bat egin badizute, haurdun bazaude edo bularra ematen ari bazara, komenigarria da mamografia atzeratzea.
- Bular-protesirik baduzu, eman horren berri unitatean mamografiak egin aurretik.

## 4 EMAITZAK

Kasuen % 90ean ez da proba gehigarririk egin behar. Emakumeei txosten bat bidaliko zaie posta arrunt bidez eta hurrengo mamografia noiz egin behar duten gomendatuko zaie.

Gutxi gorabehera % 10ek dei bat jasoko dute telefono bidez, eta unitate horretan bertan azterketa osatu behar dutela jakinaraziko zaie.

% 1i soilik gomendatuko zaie erreferentziazko ospitalera joan daitezela, prozesu diagnostikoarekin jarraitu eta tratamendua hartzeko, hala behar izanez gero.

## 5 GOIZ DETEKTATZEAREN ONURAK

- Tumore txikiak detektatzen ditu sintomak eman edo ukitu ahal izan aurretik.
- Detekzio goiztiarrak bizitzak salba ditzake, eta bizi-kalitatea hobetzen du hain erasokorrak ez diren tratamenduen bitartez.

## 6 GOIZ DETEKTATZEAREN ARRISKUAK

- Proba osagarriak kezka-iturri dira nahiz eta gehienetan haien emaitza txarra ez izan
- Diagnostikatu eta tratatzen diren zenbait minbizik ez lukete gaitasunik bizia arriskuan jartzeko. Baina eboluzioa zein izango den ez dakigunez, kasu guztietan eskaintzen da tratamendua

**ZUK ZEUK ERABAKI PROGRAMAN PARTE HARTU NAHI DUZUN!**



# PROGRAMA DETECCIÓN PRECOZ CÁNCER DE MAMA

**900 123 412**

pdpcm.unidadcentral@osakidetza.eus

http://www.osakidetza.euskadi.eus/programa-mama

LA CITA PARA PARTICIPAR EN EL PROGRAMA SE ENVÍA POR CORREO POSTAL. LAS MUJERES QUE NO ACUDEN A ESTA CITA, RECIBEN UNA SEGUNDA.

**NO SE EXCLUYE** DEL PROGRAMA AUNQUE NO SE ACUDA A ESTAS CITAS. LA CITACIÓN SE REPITE CADA DOS AÑOS.

CONSULTE CON SU MÉDICO O MÉDICA CUALQUIER ALTERACIÓN EN SUS MAMAS. LA MAMOGRAFÍA AUN SIENDO UNA PRUEBA MUY EFECTIVA, NO DETECTA TODOS LOS CÁNCERES.

Osakidetza

Euskadi, bien común

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA · DEPARTAMENTO DE SALUD